

## VITORIA-GASTEIZKO UR SAREAK BERRITZEA: SAN MARTIN AUZOAREN TXANDA DA



Edateko uraren AMVISAren banaketa sistema kontrolatzeko eta mantentzeko estrategia orokorraren barruan, **egikaritze fasean dago egun San Martin auzoko saneamendu sarea berritzeko proiektua**. Obrak ekialdetik mendebaldera, Gasteiz hiribidetik Pedro Asua kaleraino luzatzen dira eta honako kaleen inguruak barne hartzen dituzte: Tomas Zumarraga dohatsua, Ortiz de Urbina margolaria, Adriano VI.a, Jesus Apellaniz margolaria, Tomas Alfaro margolaria, Vera-Fajardo margolaria, Abendaño, Jimeno Lahidalga margolaria, Pablo Uranga margolaria, Carlos Saenz de Uralde margolaria, Diaz de Olano margolaria, Adrian Aldekoa margolaria eta Teodoro Dublang margolaria.

Sareak ia 40 urte ditu eta zuntz-zementuzko hodiez dago eginda. Material hori jada ez da erabiltzen, matxurekin arazoak ematen baititu, eta burdinurtu nodularreko ordezten ari dira. Hoditerian azken urteetan gertatu direnen moduko lehertzeak saihestuko dira horrela eta, era berean, horietatik eratorritako kalte garrantzitsuak, auzotarrei eragiten dizkieten eragozpenak eta programatu gabeko ur mozketak. **Obra egingo den sareak 10.300 metroko luzera dauka guztira eta 100 mm eta 400 mm bitarteko diametroko hodiak ditu**. Sare berriaren trazadura lehengoaren modukoa izango da, ahal den neurrian.

Obrak urtarrilean hasi ziren eta irailean amaitzea espero da; hasieran 15 hilabeteko epea ezarri zen. Epea obraren erritmoa areagotzeagatik aurreratu da. Lizitazioaren aurrekontua, guztira, 2.787.345,78 eurokoa (BEZ gabe) izan zen eta, azkenean, 1.698.535,88 eurotan (BEZ gabe) esleitu zen.

*Ur ihes kopurua murrizteko funtsezko baldintza bilakatu da hoditeria zaharrak burdinurtu nodularreko ordeztea. AMVISAren GISak sarean gertatzen diren apurketa, matxura eta ihes guztiak erregistratzen ditu. Hala, ur asko galtzen duten eta konponketa ugari zein garestiak behar dituzten hoditeriak horren arabera aldatu daitezke. Zuntz-zementuzko hodiak dira aldatu beharreko gehienak. Arazo hidraulikoak eragiteaz gain, material horrek eraikuntza-hondakin kopuru handia sortzen du, kudeatzen nahiko zaila dena. **AMVISAK aurreikusten du zuntz-zementuzko sare guztiak kenduta izatea 2025. urterako.***

Vitoria-Gasteizko ur sarea hiru modutan berritzen da:

- AMVISAK zuzenean sustatutako obren bitartez; berehala berritu beharrean diren sareetan egin ohi dira.
- Udalak lizitatu eta AMVISAK gainbegiratu eta finantzatutako obren bitartez, urbanizatzeko lanez baliatuta (aurrezki garrantzitsua lortzen da horrela zoladuretan, eta hodian berritzea haien bizitza erabilgarriaren amaieran egiten da gehien batean).
- Hirugarren batzuk egindako berritze lanak.

*Hiriko kontsumoa pixkanaka murrizten joan denez, abantaila garrantzitsuak ekarri ditu ur sarea berritzerakoan, ur edukiera berberari eutsita hoditeriaren diametroa txikitzeko aukera eman baitu eta, horri esker, zangarik gabeko teknologia erabili ahal izatea. Halakoetan, polietilenoazko hodi berria zuntz-zementuzko hoditeriaren barrutik eramateko aprobetxatzen da, kapsula babesgarri baten modura.*

### Vitoria-Gasteizko hodi berritzearen zenbait datu

- Egungo zuntz-zementuzko sareen luzera osoa: 126.000 m (guztiaren % 17,25)
- 2015ean berritu den sarea: 15.600 m
- Azken 10 urteetan berritu den sarea: 74.000 m
- Guztia berritzeko hurrengo 10 urteetarako aurreikusitako inbertsioa: 20.000.000 €

## Nire ur kontsumoa eraginkorra al da?

AMVISAren webgunean ([www.amvisa.org](http://www.amvisa.org)) **etxeko ur kontsumoaren eraginkortasun maila neurtzeko aplikazio bat dago**. Etxean egunean batez beste kontsumitzen den datuan oinarritzen da, eta hiruhileko fakturan agertzen da.

Gainera, Eraginkortasun neurgailuak gurearen pareko kontsumoa edo txikiagoa duten etxebizitzaren portzenta-jea eta, halako kontsumoarekin jarraituz gero, urte baten buruan fakturatuko den zenbateko osoa erakusten dizkigu.